

GERNIKA-LUMO. Zemendian hasi ziran Artekalea konpontzen, eta hile honen hasieran amaitu dabe behe gane barria ipintea



ONINTZA ENBEITA

Azkenean, Artekalean kafea trankil hartzeko aukerea

Bederatzi hile egon da Artekalea kalea behe zorua altxauta. Kaleko denda eta tabernetara sartzeko egurrezko zubiak egozan ipinita, eta zaratea bertako bizilagunek dakie ondoen zenbaterainokoa izan dan. Azkenean, baina, amaitu dabe kalea konpontzea.

Zer esan handia emon dabe beharrek urian. Izan be, kalea konpontzeko ardurea hartu eban enpreseak ez dau epe bat bera be bete. Lehenen-

go urtarrilerako amaitzeko, gero martirako... azkenean, garagarriera arte luzatu dira obrak. Ez dabez, ganera, brometako ondorioak izan: tabernea itxi beharra eta erropa dendetan galera handiak. Makina bat gora behera izan eta gero, atonduta dago kalea. Azkenengo aste bietan, barriro ikusten da jentea Artekaleko tabernen kanpoan jesarrita. Izan be, arkupean egoneran, udea aprobetxetan dabe tabernariak, terrazak jarteko.

Zozketarako izena emon eben bost taldeek eukiko dabe txosnea jaietan

Onintza Enbeita |

Gernika-Lumoko Udaleko Jai Batzordeak zozketea egiten dau txosnak zein talderi emon erabagiteko. Aurton 5 taldek emon dabe izena zozketarako, eta 5 txosna dagozanez, bostek eukiko dabe tabernea Paseolekuan. Honeexek izango dira taldeak: Busturialdean Euskeraz Bizi, Askagintza, Elai Alai, Arrano Kultur Taldea eta Aiuri Kultur Taldea.

Dana dala, talde batzuk berandu heldu ziran zozketa-

ra. Izena emoten joan ziranerako emonda egozan txosnak. Orduan, Udalak txosnea Lurgorriko jaietan ipinteko aukerea emon eutsen. Danek ez dabe onartu alternatibea, eta errugbi taldeak jarriko dau txosnea San Lorentzoetan.

Txosnen gunean hainbat kontzertu izaten dira, eta beste programa bat egin ordez, Jai Batzordearen programan parte hartzen dabe. Aurton, milioi bat pezeta inguruko laguntzea emon dabe txosnek jaietarako.

NABARNIZ. Egun osoko jaia izaten da urtero

Ohiturea galdu barik, eguneko jaia egingo dabe aurton be Santiago egunean

O. E. |

Santiago eguna aspaldiko urteetan ospatzen da Nabarnizen. Ez dabe jaiaren izaera aldatu: egunez egiten dabe jai nabarniztarrek Santiago egunean.

Gaur zortzi da Santiago, eta eguerdiko 12:00etako mezearen ostean, hainbat ekitaldi izango dira iluntzera arte. Lehenengo meza ostean, ohitureak agintzen dauan moduan, Nabarniz-Ereño dantzariak izango dira.

Gero, eguerdi osteko 14:00ak aldera, bakotxak

egindako paellea aurkeztu beharko dau. Bitartean, Nabarnizko ipuin leihaketako sariak banatuko dira.

Arratsaldeko 18:00etan txarri harrapetea egingo dabe. Ostean, 20:00ak bueltan, Musutruk taldearen errmomeria izango da nahikoa gin arte. Iluntzeko 21:00etan Pernil bi zozketatuko dauz Nabarnizko jai batzordeak.

Egun osoan egongo dira gaztelu puzgarriak Nabarnizko plazan. Txikienei be, aukerea emon gura deutse Nabarnizko jai batzordeak Santiago eguna ospatzeko.

BUSTURIA. Arkitektoak ez ei dauz bete beharreko orduak beteten

EAJri leporatu deustie proiektuak ez garatzea

Batasunaren eritxiz, alkateak ez dau arkitektoaren kargurik hartzen

Onintza Enbeita |

Busturiako Batasuneko udal taldeak Udaleko arkitektoaren jarrerea salatu dau. Dana dala, EAJri bota deutso jarrera horren errua. «Alkatetzeara da arkitektoari bere orduak eta proiektuen epea betearazotea», Batasuneko taldearen esanetan. Hori dala eta, EAJri egotzi deustie proiektuen «itxaron zerredea» hain luzea izatearen errua.

Udal taldeak esan dauenez, «astero 6 behar ordu egiteko kontratatatu zan, baina ez dau hartzen astero udaletxera joaten ez dan orduak ez ordaintzeko ardurea».

Batasuneko kideek azaldu dabenez, ordenamenduz kanpoko etxeak 10 hile atzeratuta dagoz, Ispilletako hotela urtebete, Aingerubiderako proiektuaren moldaketea bederetzi hile, eta beste hainbeste egitasmo alboan itxita dagoz.

«Hori baino gehiago dago: EA eta EAJko zinegotziek Ispi-

lletako frontoiari teiltuta egiteko proiektua berari agindu deutse hile betean amaitzeko baldintzeagaz. Hori, baina, beste inori aurrekonturik eskatu barik».

Arkitektoaren jarrereak, eta EAJ zein EAren itxitasuna dirala eta, urigintza proiektuetan gabeziak dagozala uste dabe Batasuneko zinegotziek. Etxezarre inguruan etxeak eregin gura dira, eta, udal taldeak jakin arazo dauenez, «hasikeran 130 milioitan egitekoa zan proiektua, eta orain 245 milioitan egingo da. Horren ganean ez dabe azalpenik emon ez

BUSTURIAKO BATASUNA

Arkitektoaren jarrerea

«Herritarrakaz daukan kontratua ez dau beteten udal arkitektoak, baina bete izan baleu lez aurkezten dauz fakturak»

alkateak, ez urigintzako zinegotziak».

Ez da egoerea salatzen daben lehenengo aldia

Apirilaren 3ko udalbatzarrean arkitektoaren kontratua bertan behera iztea proposatu eban Busturiako Batasunak. «Proposamenak ez eban aurrera egin azkenengo momentuan EAJko zinegotziek eritxia aldatu ebela».

«Kontratua barriztau eta hiru hile pasau diranean, arkitektoak egin dauana ez da bakarrik azken baten Busturiako bizilagunakaz eginda daukan kontratua ez errespetetea; oraindino be, gura dauenean agertzen da udaletxean, eta fakturak ordu guztiak bete izan baleukez lez aurkezten dauz», adierazo dau Batasunak.

Batasunaren eritxiz, txarrena «EAJ eta EAJ horren ganean ezer ez egitea, eta gizon horrek Busturiako kontribuzino ordaintzaileei barre egiten jarraitzea» da.

AGENDA

IBARRANGELU

Akordako jaiak: Gaur Santamane eguna. Eguerdiko 12:00etan mezea, eta ostean, trikitilariak. Bihar Santamane bigarrena: 12:00etako mezearen ostean, herri bazkaria.

GERNIKA-LUMO

Antzerkia: Etzi, uriko Talia antzerki taldeak obra barria taularatuko dau Elai Alai aretoan, gaueko 22:00etan. *El Club de la Comedia* izena dauka antzezlanak. **Mendi txangoa:** Goi Zale mendi taldeak Pirinioetarako urteera antolatu dau astegoienerako. Gernikatik 21ean, urtengo dabe zapatuan, eta 22an bueltau, domekan. Izena emoteko edo informazio gehiago jatzeko kultur etxera deitu behar da: 94 627 02 01. Ibilbidea hauxe izango da: Kandantxu, Oza eta Zuriza.

NABARNIZ

Zaldi probak: Irailean izango dira Andra Mari jaiak Nabarnizen. Hile horren 9an, 10ean, 15ean, 16an, 17an eta 18an izango diran zaldi probetarako abuztuaren 26aren aurretik emon beharko da izena. Irabazleak 100.000 pezeta jasoko dauz, eta bigarrenak 90.000. Herrikoentzat sari bereziak egongo dira. Leihaketearen kalitatea handia bada, eta 40 untze egin arren inor saririk barik geratzen bada, 35.000 pezeta emongo jakoz. Informazio gehiago gura dauanak, edo zuzenean izena emotekotan dagoanak Nabarnizko Herriko Tabernara deitu beharko dau: 94 625 60 40 telefonora. Zaldiek garraiatu beharrekoa Nabarnizko probalekuko harria izango da 50 kilo ganean ipinita.

BERMEO

Dantzariak: Bariku gaueko 22:00etan Alkartasuna taldea izango da Artzan.